# URTEKO/ZIKLOKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
# PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA ANUAL/DE CICLO

## CURSO 2025-2026 IKASTURTEA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ikastetxea<br>Centro | Jesús Guridi EMK/ CPM Jesús Guridi | Kodea<br>Código | 010131 |
| Etapa<br>Etapa | Ikasketa Elementalak/Enseñanzas elementales | Zikloa/maila<br>Ciclo/nivel | 1 |
| Arloa/irakasgaia<br>Área/ Materia | Txistua/Txistu | | |
| Irakasleak<br>Profesorado | Kepa Pinedo | | |

| HELBURUAK<br>OBJETIVOS | EBALUAZIO-IRIZPIDEAK<br>CRITERIOS DE EVALUACIÓN |
|---|---|
| - Gorputzaren ezaguera, ondoren musika tresnekin era egokienean lan egin ahal izateko. | - Gorputzaren jarrera egokia; erlaxaturik, oin azpia pisua sentitu, aldakan grabitate zentroa jarririk eta bizkar hezurra egoki luzaturik, horrela birikek pelbisaren gaineko giharren bidez lan egin ahal izateko eta eskuetako hatzek soinu tresnarekin mugimendu zehatzak egin ahal izateko sentsibilitatea erakustea.<br>- Ispiluaren eta egun oso eskuragarri den norberaren irudia grabatzea erabil genitzake errealitatearen isla zehatza jasotzeko. Tresna hauen erabilpena bermatzea. |
| - Arnasketaren oinarriak ezagutzea, maila guztietan oinarrizko eta lehentasunezko trebatzea eskatzen dute. Behar adina ariketa eta denbora eskainiko zaio lan saioetan. Arnas aparatuaren funtzionamenduak dituen era desberdinak ezagutaraztea, sentitzea eta ikustaraztea oinarri harturik ondoren musika jardueran txertatu ahal izateko. | - Arnasa hartu eta botatzeak dauzkan pausoak aztertu eta hauen funtzionamendua menperatzen ikasten ari dela erakustea. Lehenik musika tresnarik gabe eta hau gainditu ostean musika tresnarekin. |
| - Txistuak (*metalezko poxpolina, pastazko eta egurrezko txistuak)* zein danbolinak eta hau jotzeko makilak dauzkaten bereizgarri nagusi eta orokorrenak ezagutarazteko aukera. | - Ezagutza hau jasotzeko guraria adieraztea. |
| -Txistua (soinu tresna) esku eta aho artean era egokian jartzea.<br>-Danbolina, bakarka, hartu eta era egokian zintzilikatzea eta danbolin makila ere hatz egokiekin eustea eta mugitzea edo eragitea. | -Txistua eusterakoan lepoa okertu gabe eta eskua gorputzaren erdialdean kokatzeko gai izatea. Hatzak era borobilduan eta txistuari perpendikularki jartzeko gaitasuna garatzen ari dela ikustaraztea. |

| | |
|---|---|
| -Danbolinaren makila hartzeko jarrera landu.<br>Makilarekin hastapenean, danbolinean bertan edo beste edozein azaleretan oinarrizko erritmoak errepikatzeko pausoak ematea. | - Danbolina jotzeko garaian eskumutur, ukalondo eta sorbalda erlaxatuaz hatzekin makilari eragiteko gaitasuna lantzea.<br>- Danbolinaren makilaz oinarrizko erritmo kolpe xinpleenak erabiltzeko gaitasunaren garapena. Danbolinarekin bakarka eta ahal balitz txistuaren laguntzaz. (Konpaseko kolpe bakarraz hasi eta ondoren 2x4 edo 3x4 konpasekin. Bakarka aldiz kale jiraren apaindurarekin froga egin daiteke) |
| - Kanta ezagunen partiturarik gabeko bat bateko jotzea.<br>-Egitura xinpleen inprobisazioa. | - Kanta ezagunak jotzeko gaitasuna esnatzea dauzkagun trebetasunak erabiliaz.<br>-Txistu soilaz asmaturiko esaldiak egiteko gaitasuna edo danbolinaz erritmo xinpleenetan lagunduriko nota luzeez osatutako esaldien inprobisatze edo. |
| -Partituraren ulermena; Partituren antolamendua irakurtzeko eta deszifratzeko lehen urratsak. | - Jo aurretiko idatzirik dugun partituraren esan nahiaren eta bere estrukturaren ulermen oinarrizkoa erakustea.<br>-Partiturak lantzerakoan arkatzaren erabilera sustatzea, analisi tresna gisan. |
| - Ikasketa prozesuan eguneroko norbanakoaren lanaren ohitura hartzea: maiztasunak aldizkako lanaren aldean dauzkan abantailen onurak ikustaraztea.<br>- Lanean jarduteko garaian, lehentasunen arabera antolatzea; Zatikako ikasketa, partiturak dituen zailtasunen eta jotzerakoan lehen aldiz azaltzen diren pasarteen lokalizazioa eta hauen lanketa. | - Aldez aurretik adosturiko asteroko zein eguneroko ikasketa ordutegia betetzen ikastea eta honen antolaketa:<br>Arnasketa, erlaxazioa, analisia, interpretazioa, danbolinaren ariketak … |
| -Re eta mi noten arteko notak bereiztea. | -Re eta mi noten arteko notak bereizteko arnasaren erabilpen oinarrizkoa. |
| - Jendaurreko musika emanaldiaren esperientzia ludikoaren lanketa. | - Jotzeko aukeratutako edukien aurretiko lan egokia. Lan hau buruz egiteko aukera lehenestea.<br>- Entzuleari zor diogun errespetua eta eskaini nahi diogunaz ideia argia izatea.<br>- Jendaurrean lan egiteak eska dakizkigukeen arau eta zioak jakitea.<br>- Nor bere buruaren jabe izaten ikastea jende aurrean egoteak trabarik sortu gabe. |

| | |
|---|---|
| - Irakaslearen txistu edo pianoaren laguntzarekin musika eginez entzumena eta talde lanean lehen urratsak garatzea. | -Ganbara musikaren hastapenak ezagutu irakaslearen laguntza musikalarekin.<br>-Norbanako eta gainontzekoen entzuteko gaitasuna bereizteko gai da.<br>-Elkar lanaz gozatzeko gai da. |
| - Memoria lantzea: musika pasarte xinpleenetik abiatuaz, kanta osoak buruan ikuskatu eta antolatzeko gaitasunaren lanketa. Ondoren, musikaren materialitateaz sortu dugun ideia hori musika esperientzia bilakatzen gai izateko. | -Musikari dagokion egitura ulermenari esker eta zatika duen antolamenduaren logikari esker gauzak memorian jaso eta errepikatzeko gai da. Hauek oso xinpleak izanik. |

## EDUKIEN SEKUENTZIA | SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS

Denbora-tarteka, unitate diaktikoka, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta,…
Organización en periodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje…

1. EBALUAKETA

- Arnasketaren oinarriak ezagutzea
- Arnasa hartu eta botatzeak dauzkan pausoak eta hauek menperatzen ikastea. Lehenik musika tresnarik gabe eta hauek gainditu ostean musika tresnarekin.
- Gorputzaren jarrera egokia; erlaxaturik, aldakan grabitate zentroa jarririk eta bizkar hezurra egoki luzaturik, horrela birikek pelbisaren gaineko giharren bidez lan egin ahal izateko eta eskuetako hatzek soinu tresnarekin mugimendu zehatzak egin ahal izateko
- Danbolinaren makila hartzeko jarrera landu
- Jendaurreko musika emanaldiaren esperientzia ludikoaren lanketa.
    - Memoria lantzea: musika pasarte xinpleenetik abiatuaz.

2. EBALUAKETA

    - Arnasketaren oinarriak ezagutzea
    - Arnasa hartu eta botatzeak dauzkan pausoak eta hauek menperatzen ikastea. Lehenik musika tresnarik gabe eta hauek gainditu ostean musika tresnarekin.
    - Gorputzaren jarrera egokia; erlaxaturik, aldakan grabitate zentroa jarririk eta bizkar hezurra egoki luzaturik, horrela birikek pelbisaren gaineko giharren bidez lan egin ahal izateko eta eskuetako hatzek soinu tresnarekin mugimendu zehatzak egin ahal izateko
    - Danbolinaren makila hartzeko jarrera landu.
    - Jendaurreko musika emanaldiaren esperientzia ludikoaren lanketa.
    - Memoria lantzea: musika pasarte xinpleenetik abiatuaz.

3. EBALUAKETA

- Arnasketaren oinarriak ezagutzea
- Arnasa hartu eta botatzeak dauzkan pausoak eta hauek menperatzen ikastea. Lehenik musika tresnarik gabe eta hauek gainditu ostean musika tresnarekin.
- Gorputzaren jarrera egokia; erlaxaturik, aldakan grabitate zentroa jarririk eta bizkar hezurra egoki luzaturik, horrela birikek pelbisaren gaineko giharren bidez lan egin ahal izateko eta eskuetako hatzek soinu tresnarekin mugimendu zehatzak egin ahal izateko
- Memoria lantzea: musika pasarte xinpleenetik abiatuaz.
- Jendaurreko musika emanaldiaren esperientzia ludikoaren lanketa.

## METODOLOGIA | METODOLOGÍA

Edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antoaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna… ikuspegi inklusibo batetik.
Organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado… desde una perspectiva inclusiva.

Ikasleak asteroko-tasunean, urratsez-urrats txistu eta danbolinari buruzko zantzuak jaso eta trebatzen joango da.
Hastapenean goran aipatu gorputzaren lanketa izango da abiapuntu eta lehengai. Ondoren arnasketa eta danbolinarekin jarraitu eta azkenik txistuaren munduan murgiltzeko.
Erritmo xinpleenak danbolinaz eta txistuarekin berriz nota kopurua aberasten banan bana.
Kanta eta dantza herrikoi xinpleenak izango ditu ikasleak lagungarri.
Zuzeneko musika entzunaldi oro eta herri musikari edo eta txistuaren esparrukoak egin ditzan bultzatuko dugu ikaslea. Noski edozein formatutan grabaturiko musikak entzuteari muzin egin gabe.
Txosten ofizial baten bidez eta irakasleen taldea informatu eta gero, behar bereziak behar dituen ikasleriak adaptazio kurrikular eta baliabide bereziak bere eskura eukiko ditu.

METODOAK
Aurrak jo txistua 1: *L Elizalde*
Txirulaz 1: (Hik hasi) *Xabier Zabala*
Txistu gozoa 1: *J I Ansorena*
Txistuka/Txistuka Berria: *Gasteizko Folklore Eskola*
Helburuei lotutako beste obra eta beharrezko liratekeen lanak.

| EBALUAZIO-TRESNAK<br>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN | KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK<br>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN |
|---|---|
| Ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoa, paper-zorroa, kontratu didaktikoa… | Ebaluazio-tresna, bakoitzaren pisua eta balioa<br>Peso y valor de cada instrumento de evaluación |

| Pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico… | |
|---|---|
| • Lanerako jarrera kostruktiboak eta ikasteko jarrera eraginkorrak garatzen ditu ikasleak.<br>• Partituraren zeinuak ondo ulertzen ditu eta dikurtso koherente eta espresibo batean bihurtzen du ikasleak<br>• Barnekoo entzumena eta barneko pultsoa garatzen ditu ikasleak.<br>• Soinu emisio egoki bat lortzeko, oinarrizko gorpuz kontrola bereganatzen du ikasleak.<br>• **Estilo esta garai ezberdinetako musika interpretatzea** | • Ikasgelan azaldutako jarrera: 25-30 %<br>• Partitura interpretatzea: 10-20%<br>• Barneko entzumen eta pultsoa: 15-30 %<br>• Gorputz kontrola: 20-30%<br>• Estilo esta garai ezberdinetako musika interpretatzea: 0-10% |

## EBALUAZIOAREN ONDORIOAK | CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN

Finkatzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamentdu-agoitzapenak eta egoitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekuperazio-sistema…
Medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación…

Ebaluaketa bakoitz gainditzeak, 5/10 ko puntuaketa lortzea eskatuko dio ikasleari, emaitza hau goian aipatu kalifikazio alde desberdinen batuketaren bidez lortutakoa izango delarik.

Ebaluaketa prozesua etengabekoa denez, ikasleak ohiko azken ebaluaketan gainditu beharrekoa izango da. Hala ez balitz edo eskubide hau asistentzia hutsegite larregi izanagatik galdu izan balu, azken azterketa egitera behartua izango da (ezohiko azterketa), bertan gutxieneko edukiak gainditu behako dituelarik.

## OHARRAK | OBSERVACIONES

Aztertu diren esparru eta edukiak orokortasunari dagozkionak lirateke eta garrantzitsuena beharko lukeen ikasleen gaitasunen aniztasunari men egitea, legeak dionari jarraiki, kasuan kasuko berezitasunetara moldatu beharra azpimarratu beharra daukagu, beraz guztia malgutasunaz erabiltzea ezinbesteko arau eta paradigma bihurtuko dugu.

Behar bereziak eskatzen dituzten ikasleak adaptazio kurrikular baten bidez egokituko dira irakaskuntza sisteman.

URTEKO/ZIKLOKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA ANUAL/DE CICLO

CURSO 2025-2026 IKASTURTEA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ikastetxea<br>Centro | Jesús Guridi EMK/ CPM Jesús Guridi | Kodea<br>Código | 010131 |
| Etapa<br>Etapa | Ikasketa Elementalak/Enseñanzas elementales | Zikloa/maila<br>Ciclo/nivel | 2 |
| Arloa/irakasgaia<br>Área/ Materia | Txistua/Txistu | | |
| Irakasleak<br>Profesorado | Kepa Pinedo | | |

| HELBURUAK<br>OBJETIVOS | EBALUAZIO-IRIZPIDEAK<br>CRITERIOS DE EVALUACIÓN |
|---|---|
| - Gorputzaren ezaguera, ondoren musika tresnekin era egokienean lan egin ahal izateko. | - Gorputzaren jarrera egokia; erlaxaturik, oin azpia pisua sentitu, aldakan grabitate zentroa jarririk eta bizkar hezurra egoki luzaturik, horrela birikek pelbisaren gaineko giharren bidez lan egin ahal izateko eta eskuetako hatzek soinu tresnarekin mugimendu zehatzak egin ahal izateko sentsibilitatea erakustea.<br>- Ispiluaren eta egun oso eskuragarri den norberaren irudia grabatzea erabil genitzake errealitatearen isla zehatza jasotzeko.<br>Tresna hauen erabilpena bermatzea. |
| - Arnasketaren oinarriak ezagutzea, maila guztietan oinarrizko eta lehentasunezko trebatzea eskatzen dute. Behar adina ariketa eta denbora eskainiko zaio lan saioetan. Arnas aparatuaren funtzionamenduak dituen era desberdinak ezagutaraztea, sentitzea eta ikustaraztea oinarri harturik ondoren musika jardueran txertatu ahal izateko. | - Arnasa hartu eta botatzeak dauzkan pausoak aztertu eta hauen funtzionamendua menperatzen ikastea. Lehenik musika tresnarik gabe eta hau gainditu ostean musika tresnarekin. |
| - Txistuak (*metalezko poxpolina, pastazko eta egurrezko txistuak)* zein danbolinak eta hau jotzeko makilak dauzkaten bereizgarri nagusi eta orokorrenetan arakatzen jarraitu eta pixkanaka nozio zabalagoa lortzea. | -Esku artean dituen soinu tresnen bereizgarri organologiko nagusiak bereizten jartzen ari da. |
| -Txistua (soinu tresna) esku eta aho artean era egokian jartzea. | -Txistua eusterakoan lepoa okertu gabe eta eskua gorputzaren erdialdean kokatzeko gai da. Hatzak era borobilduan eta txistuari |

| | |
|---|---|
| -Danbolina, bakarka, hartu eta era egokian zintzilikatzea eta danbolin makila ere hatz egokiekin eustea eta mugitzea edo eragitea.<br><br>-Danbolinaren makila hartzeko jarrera landu.<br><br>Makilarekin hastapenean, danbolinean bertan edo beste edozein azaleretan oinarrizko erritmoak errepikatzeko pausoak ematea. | perpendikularki jartzeko gaitasuna garatzen ari dela ikustaraztea.<br><br>- Danbolina jotzeko garaian eskumutur, ukalondo eta sorbalda erlaxatuaz hatzekin makilari eragiteko gaitasuna lantzeko gai da.<br><br>- Danbolinaren makilaz oinarrizko erritmo kolpe xinpleenak erabiltzeko gaitasunaren garapena. Danbolinarekin bakarka eta ahal balitz txistuaren laguntzaz. (2x4 edo 3x4 konpasekin. Bakarka aldiz kale jiraren edo 3x4ko apaindurekin froga egin daiteke) |
| -Ulertaraztea egunerokotasunean ikasketak zeinen garrantzia duen. Maiztasuna dela emaitzen garaian erabakiorra.<br><br>-Ikasketa antolatzea, goitik behera jotzeak daukan errenta eskasa eta aldiz zati esanguratsuenak hautatzearen eraginkortasuna. | -Adostutako ordutegiak eta egutegiak aurrera eramateko gaitasuna erakustea. Aurkezturiko metodologia erabiltzeko gai dela erakustea.<br><br>- Ikasteko garaian lana antolatzeak duen garrantziaz jabetzen da, denbora aurreztu eta etekina atereaz, txistu eta danbolina jotzen ARITU eta ez EGON. |
| -Re eta LA noten arteko notak bereiztea eta fa sostenitua ezagutzea. | -Re eta LA noten arteko notak bereizteko arnasaren erabilpen oinarrizkoa. |
| - Irakaslearen txistu edo pianoaren laguntzarekin musika eginez entzumena eta talde lanean lehen urratsak garatzea. | -Ganbara musikaren hastapenak ezagutu.<br><br>-Norbanako eta gainontzekoen entzuteko gaitasuna bereizteko gai da.<br><br>-Elkar lanaz gozatzeko gai da. |
| -Egitura xinpleen inprobisazioa. | -Txistu soilaz asmaturiko esaldiak egiteko gaitasuna edo danbolinaz erritmo xinpleenetan lagunduriko nota luzeez osatutako esaldien inprobisatzeko gaitasuna du. |
| -Partituraren ulermena; Partituren antolamendua irakurtzeko eta deszifratzeko lehen urratsak. | - Jo aurretiko idatzirik dugun partituraren esan nahiaren eta bere estrukturaren ulermen oinarrizkoa erakustea.<br><br>-Partiturak lantzerakoan arkatzaren erabilera sustatzea, analisi tresna gisan.<br><br>- Jotzeko aukeratutako edukien aurretiko lan egokia. Lan hau buruz egiteko aukera lehenestea. |

| | |
|---|---|
| - Jendaurreko musika emanaldiaren esperientzia ludikoaren lanketa.<br><br>- Memoria lantzea: musika pasarte xinpleenetik abiatuaz, kanta osoak buruan ikuskatu eta antolatzeko gaitasunaren lanketa. Ondoren, musikaren materialitateaz sortu dugun ideia hori musika esperientzia bilakatzen gai izateko. | - Entzuleari zor diogun errespetua eta eskaini nahi diogunaz ideia argia izatea.<br><br>- Jendaurrean lan egiteak eska dakizkigukeen arau eta zioak jakitea.<br><br>- Nor bere buruaren jabe izaten ikastea jende aurrean egoteak trabarik sortu gabe.<br><br>-Musikari dagokion egitura ulermenari esker eta zatika duen antolamenduaren logikari esker gauzak memorian jaso eta errepikatzeko gai da.<br><br>-Gai da era ulergarrian buruz eduki geroz eta konplexuagoak emateko.<br><br>-Jabetzen hasia da buruz aritzeak dituen abantailez. |

## EDUKIEN SEKUENTZIA | SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS

Denbora-tarteka, unitate diaktikoka, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta,…
Organización en periodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje…

- Arnasketaren oinarriak azpimarratzea.

- Arnasa hartu eta botatzeak dauzkan pausoak eta hauek menperatzen ikastea. Lehenik musika tresnarik gabe eta hauek gainditu ostean musika tresnarekin.

- Gorputzaren jarrera egokia; erlaxaturik, aldakan grabitate zentroa jarririk eta bizkar hezurra egoki luzaturik, horrela birikek pelbisaren gaineko giharren bidez lan egin ahal izateko eta eskuetako hatzek soinu tresnarekin mugimendu zehatzak egin ahal izateko

- Memoria lantzea: musika pasarte xinpleenetik abiatuaz.

- Jendaurreko musika emanaldiaren esperientzia ludikoaren lanketa

-Txistua eusterakoan lepoa okertu gabe eta eskua gorputzaren erdialdean kokatzeko gai da. Hatzak era borobilduan eta txistuari perpendikularki jartzeko gaitasuna garatzen ari dela ikustaraztea.

- Danbolina jotzeko garaian eskumutur, ukalondo eta sorbalda erlaxatuaz hatzekin makilari eragiteko gaitasuna lantzeko gai da.

- Arnasketa menperatzeak doinuen kalitatean duen eragina lotzeko eta adierazteko ariketen bidezko prozesua lantzea.

- Bi ahotsetara edo pianoz lagunduta elkar lan eta entzutearen lanean urratsak ematea.

- Jendaurreko entzunaldietan  parte hartzea.

- Aurretik aztertutako pasarteak memorian nola iltzatu eta atondu.

## METODOLOGIA | METODOLOGÍA

Edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antoaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna… ikuspegi inklusibo batetik.
Organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado… desde una perspectiva inclusiva.

Irakasleak ikaslearengan bere gorputzarekiko jakin mina sorraraziko dio eta ondoren oinarri honetatik abiatuaz musikarekin lotuko du esperientzia hau. Musikaren bizipena eta konkretuki dagokigun gaiaz, txistu eta danbolinaz lotura egiten saiatuko da.

Mailari dagozkion trebetasunak kitzikatu eta azaleratzea izanen da irakaslearen eginkizun nagusia, ikasleari bidea egiteko beharrezko izango dituen tresnak eskuragarri eginez mailakaturik. Beti ere esperientzia honetan ikaslearen dohain eta gabeziak izanen dira erabakiorrak. Faktore guzti hauek kontutan izanik burutuko da astez asteko aurrerabidea.

Lan saioak bi motatakoak dira, bakarkako zein taldekoak. Lehenetan probestuko da ahalik eta errendimendu azkarrena lortzea bigarrenean

Ikasleak asteroko-tasunean, urratsez-urrats txistu eta danbolinari buruzko zantzuak jaso eta trebatzen joango da.

Hastapenean goran aipatu gorputzaren lanketa izango da abiapuntu eta lehengai. Ondoren arnasketa eta danbolinarekin jarraitu eta azkenik txistuaren munduan murgiltzeko.

Erritmo xinpleenak danbolinaz eta txistuarekin berriz nota kopurua aberasten banan bana.

Kanta eta dantza herrikoi xinpleenak izango ditu ikasleak lagungarri.

Zuzeneko musika entzunaldi oro eta herri musikari edo eta txistuaren esparrukoak egin ditzan bultzatuko dugu ikaslea. Noski edozein formatutan grabaturiko musikak entzuteari muzin egin gabe.

Txosten ofizial baten bidez eta irakasleen taldea informatu eta gero, behar bereziak behar dituen ikasleriak adaptazio kurrikular eta baliabide bereziak bere eskura eukiko ditu.

METODOAK

Aurrak jo txistua 2: L Elizalde

Txirulaz 1-2: (Hik hasi) Xabier Zabala

Txistu gozoa 1-2: J I Ansorena

Tratado de txistu y gaita; Olazaran

Txistuka/Txistuka Berria: *Gasteizko Folklore Eskola*

Helburuei lotutako beste obra eta beharrezko liratekeen lanak.

REPERTORIOA

Oinarrizko herri musikaren ezaguera : Kalejira, Fandango eta Arin arinak. Dantza Herrikoiak.

| EBALUAZIO-TRESNAK<br>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN | KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK<br>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN |
|---|---|
| Ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoa, paper-zorroa, kontratu didaktikoa…<br>Pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico… | Ebaluazio-tresna, bakoitzaren pisua eta balioa<br>Peso y valor de cada instrumento de evaluación |

| | |
|---|---|
| • Lanerako jarrera kostruktiboak eta ikasteko jarrera eraginkorrak garatzen ditu ikasleak.<br>• Partituraren zeinuak ondo ulertzen ditu eta dikurtso koherente eta espresibo batean bihurtzen du ikasleak<br>• Barnekoo entzumena eta barneko pultsoa garatzen ditu ikasleak.<br>• Soinu emisio egoki bat lortzeko, oinarrizko gorpuz kontrola bereganatzen du ikasleak.<br>• **Estilo esta garai ezberdinetako musika interpretatzea** | • Ikasgelan azaldutako jarrera: 20-30 %<br>• Partitura interpretatzea: 15-20%<br>• Barneko entzumen eta pultsoa: 15-30 %<br>• Gorputz kontrola: 25-30%<br>• Estilo esta garai ezberdinetako musika interpretatzea: 5-10% |

## EBALUAZIOAREN ONDORIOAK | CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN

Finkatzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamentdu-agoitzapenak eta egoitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekuperazio-sistema…
Medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación…

Ebaluazioa gainditzeko 5/10 gutxieneko notara iritsi beharra izango du ikasleak orotara

Ikasturtea gainditu ezean arautegian azaltzen den prozesua jarraituko da.

## OHARRAK | OBSERVACIONES

Aztertu diren esparru eta edukiak orokortasunari dagozkionak lirateke eta garrantzitsuena beharko lukeen ikasleen gaitasunen aniztasunari men egitea, legeak dionari jarraiki, kasuan kasuko berezitasunetara moldatu beharra azpimarratu beharra daukagu, beraz guztia malgutasunaz erabiltzea ezinbesteko arau eta paradigma bihurtuko dugu.

Behar bereziak eskatzen dituzten ikasleak adaptazio kurrikular baten bidez egokituko dira irakaskuntza sisteman.



Plaza de la Constitución, 9 • 01009 Vitoria-Gasteiz • 945 18 70 44 • 010131se@hezkuntza.net • www.conservatoriovitoria.com

## PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA ANUAL/DE CICLO

### CURSO 2025-2026 IKASTURTEA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ikastetxea<br>Centro | Jesús Guridi EMK/ CPM Jesús Guridi | Kodea<br>Código | 010131 |
| Etapa<br>Etapa | Ikasketa Elementalak/Enseñanzas elementales | Zikloa/maila<br>Ciclo/nivel | 3 |
| Arloa/irakasgaia<br>Área/ Materia | Txistua/Txistu | | |
| Irakasleak<br>Profesorado | Kepa Pinedo | | |

| HELBURUAK<br>OBJETIVOS | EBALUAZIO-IRIZPIDEAK<br>CRITERIOS DE EVALUACIÓN |
|---|---|
| -Musika tresnen mantenu eta erabilera egokia. | -Txistuaren garbitasuna mantentzeko ezaguera; Tutu nagusiaren garbiketa,.<br><br>-Mokoaren garbiketa tentuz egitea.<br><br>- Xaflatxoaren garbitasuna eta kokapen egokia erakustea.<br><br>- Danbolinaren bordoiaren erabilpena eta larruen tenkatzea eta muntaiaren ezaguera azaltzea. |
| - Gorputzaren ezaguera, ondoren musika tresnekin era egokienean lan egin ahal izateko.<br><br>-Ikasketa prozesu guztian zehar eten gabe hobetu eta landuko den gaietarikoa, arnasketa eta artikulazioarekin batera besteak beste. | - Gorputzaren jarrera egokia; erlaxaturik, oin azpia pisua sentitu, aldakan grabitate zentroa jarririk eta bizkar hezurra egoki luzaturik, horrela birikek pelbisaren gaineko giharren bidez lan egin ahal izateko eta eskuetako hatzek soinu tresnarekin mugimendu zehatzak egin ahal izateko<br><br>- Ispiluaren eta egun oso eskuragarri den norberaren irudia grabatzea erabil genitzake errealitatearen isla zehatza jasotzeko. |
| - Arnasketaren oinarrietan sakontzea, maila guztietan oinarrizko eta lehentasunezko trebatzea gainditu eta pixkanaka hau automatizatzeko helburuarekin. Behar adina ariketa eta denbora eskainiko zaio lan saioetan. Arnas aparatuaren funtzionamenduak dituen era desberdinak menderatzea, sentitzea eta ikustaraztea musika jardueran duen garrantziaz | - Lortu nahi da ikasle jabetu dadila arnasketaren zutabeak oinarri egokia daukanean soinuaren kalitatea hobea dela.<br><br>- Arnasa hartu eta botatzeak dauzkan pausoak n garren aldiz berraztertu eta hauen funtzionamendua automatizatzen ikasi du. Musika tresnarik gabe eta hau gainditu ostean musika tresnarekin. Honek eskeintzen |

| | |
|---|---|
| jabetzeko gaitasuna izatea. Eta arnasketak pertsonaren garapen pertsonalean izan dezakeen garrantziaz jabetzea. | dizkigun aukeren zabaltasunaz jabetzen da. Gorputzaren eta are gehiago izaeraren menderatzeko gaitasunean arnasak duen eraginaz kontzientzia hartzen ari da. |
| -Txistua (soinu tresna) esku eta aho artean era egokian jartzea.<br><br>-Danbolina, bakarka, hartu eta era egokian zintzilikatzea eta danbolin makila ere hatz egokiekin eustea eta mugitzea edo eragitea.<br><br>-Danbolina eta Txistuaren arteko koordinazio lana.<br><br>-Danbolinaren makila hartzeko jarrera lantzen jarraitu.<br><br>-Makilarekin, danbolinean bertan edo beste edozein azaleretan oinarrizko erritmoak errepikatzeko pausoak ematea eta apaindurekin lanketa areagotzea.<br><br>-Ulertaraztea egunerokotasunean ikasketak zeinen garrantzia duen. Maiztasuna dela emaitzen garaian erabakiorra.<br><br>-Ikasketa antolatzea, goitik behera jotzeak daukan errenta eskasa eta aldiz zati esanguratsuenak hautatzearen eraginkortasuna.<br><br>-Do eta Do noten arteko notak bereiztea eta fa,do sostenituak, si, mi eta la b kromatismoak ezagutzea.<br><br>-Azpiko (fa giltzan idatzitakoa) tesiturari dagozkion noten teknikaren ezagutza. | -Txistua eusterakoan lepoa okertu gabe eta eskua gorputzaren erdialdean kokatzeko gai izatea. Hatzak era borobilduan eta txistuari perpendikularki jartzeko gaitasuna.<br><br>- Danbolina jotzeko garaian eskumutur,ukalondo eta sorbalda erlaxatuaz hatzekin makilari eragiteko gaitasuna lantzea.<br><br>-Danbolina eta Txistuaren arteko koordinazio hobetzeko ariketa eta trebakuntza eskema xinpleenetik eta kolpe garbietatik abiatu eta apaindura eta erritmo bizkorragoetara bidea ikustea.<br><br>- Danbolinaren makilaz beti oinarrizko erritmo kolpeetatik abiatuaz hauen garapena lortzeko gai da.<br><br>-Berrikuntzak beti bakarka landu eta automatizatu ondoren txistuaren laguntzaz.<br><br>- Dantzarako Erritmo ohikoez gain txistua laguntzeko idatziriko danbolin partitura errazak irakurtzeko gai da.<br><br>-Adostutako ordutegiak eta egutegiak aurrera eramateko gaitasuna erakustea. Aurkezturiko metodologia erabiltzeko gai dela erakustea.<br><br>- Ikasteko garaian lana antolatzeak duen garrantziaz jabetzen da, denbora aurreztu eta etekina atereaz, txistu eta danbolina jotzen ARITU eta ez EGON.<br><br>-Do eta Do noten arteko notak bereiztea eta muturreko nota hauetan bereziki arnas zutabearen erabakikortasunaz jabetzen da.<br><br>-Beheko Do eta goiko azken hiru noten sorreran hatz txikiak beha duen mugimendu |

| | |
|---|---|
| - Irakaslearen txistu edo pianoaren laguntzarekin musika eginez entzumena garatzea. | zehatzak ezagutzen ditu, esku muturra geldik mantenduta egiteko gai da.<br><br>- Sostenitu eta bemolen tonu erdien afinazioa zehazteko gaitasuna garatzen ari da.<br><br>-Ganbara musikaren hastapenak ezagutu. |
| -Egitura xinpleen inprobisazioa. | -Norbanako eta gainontzekoen entzuteko gaitasuna bereizteko gai da.<br><br>-Elkar lanaz gozatzeko gai da.<br><br>-Txistu soilaz asmaturiko esaldiak egiteko gaitasuna edo danbolinaz erritmo xinpleenetan lagunduriko nota luzeez osatutako esaldien inprobisatzeko gaitasuna du. |
| -Partituraren ulermena; Partituren antolamendua irakurtzeko eta deszifratzeko lehen urratsak.<br><br>-Musikaren interpretazioari dagozkion ñabarduren ezagutza eta erabilera bultzatzea.<br><br>- Esaldien joan etorriaren kontzeptua. | - Jo aurretiko idatzirik dugun partituraren esan nahiaren eta bere estrukturaren ulermen oinarrizkoa erakustea.<br><br>-Partiturak lantzerakoan arkatzaren erabilera sustatzea, analisi tresna gisan.<br><br>-Esaldiaren kontzeptuaren ulermena barneratzen ari da, hasera eta amaiera, galde erantzuna … |
| -Matizen erabilera desberdinak.<br><br>- Kontzeptu horien erabilera espresibitatearen mesedetan. | -Honetarako airearen erabilera egokiak duen garrantziaz jabetzen da, nagusiki esaldi amaieretan.<br><br>- Forte eta piano kontzeptuak ezagutu eta beraien erabileraz jabetzen da<br><br>-Aipaturiko elementuek eta beste batzuek musikaren eraginkortasun eta esan nahian duten garrantzia ulertzen du |
| -Afinazioaren parametroa lantzea berekiko eta beste soinu tresnekin alderaturik. | -Txistuaren luzeraren bariazioak sorturiko afinazio aldaketa ulertzen du.<br><br>Danbolinaren larruen tenkatzeak sorturiko afinazio aldaketa sumatzeko gai da. |
| -Talde lanean, honen antolamendua, arauak, elkar ulertzeko bideak erakusten saiatu. -Elkarrengandiko entzunketa aktiboa. | -Danbolinaren bordoiaren eginkizunaz jabetzen hasia da. |

| | |
|---|---|
